

5. DIRU-ITURRIAK

Diru-sarrerei dagokionez, diru-iturria bi modutan banatuko da: nagusia, erabilitako tamaina eta materialen arabera finkatuko den prezioa izango da. Epe luzera ordaindu ahal izango da, esaterako, bankuren bati mailegua eskatuz, baina aurretik produktuaren zati bat ordaindu beharko da gastuak kubritzeko.



Bigarren modua, komunitate-gastuen bidez izango da, zerbitzua mantentzeagatik; izan ere, mekanismoren bat hondatu ahal delako. Hilero edo hiru hilean behin ordaintzeko modua erabakiko da, epea guztiz ordaindu arte.

Udalak produktuak erostea erabakitzen badu, komunitatea mantentze-gastuak ordaintzeaz bakarrik arduratuko da. Bestalde, udalak, produktuaren kostua ordaindu eta gero, aldeztu aurretik adostuta egongo den portzentai bat ordainduko digu, kontribuzio berezien ordaintzetatik jasotzen duenarekin. Izan ere, gure ekarpenari esker, auzoak eta, zehazki eraikin-blokeak, bere balioa handitu dutelako.

Gure produktuaren prezioa ez da beti berdina izango, tamaina, kokapena materialak... produktu guztietan ez direnez berdinak izango, prezioa altuagoa edo baxuagoa izango da, beraz dinamikoa izango da. Gure prezioa erabakitzerako orduan, edukiontzia ekoizterako kostuak gehi %20 izango da gutxienez. Ondoren, etekin kopurua gehiago izateko, beste ehuneko bat gehitu egingo diogu, aldeztu aurretik hainbat mailatan sailkatuta egongo direnak. Ehunekoak, kostuen gehi %20ren emaitzaren inguruan egongo da. Emaitza hori 15000€ko baxuagoak badira, %50 aplikatuko egingo da; 15000€-17500€ artean baldin badago, %25 gehituko egingo diogu; 17500€-20000€ artean baldin badago, %20 gehituko diogu; 20000€-22500€ artean baldin badago, %15a; 22500€-25000€ artean, %10, eta hortik gorakoak badira, guztiei %8a gehituko egingo.